

XagunArtea

2011ko maiatzaren 23a

Xagun aldizkaria

65. alea

Hauteskundeetako emaitzak



Maiatzaren 22an Zerainen ere Udal eta Foru Hauteskundeak izan ziren. Udal hauteskundeetan 216ko errolatik 164k eman zuten botoa. 7 boto zurian izan ziren eta 13 boto baliogabeak. Jasotako botoei dagokienez, berriz, honela geratu ziren emaitzak: Jose Manuel Oriak 124 boto, Itxaro Alustizak 117 boto, Haritz Iztuetak 102 boto, Joxe Mari Telleriak 93 boto eta Andoni Alustizak 91 boto. PPren hautagaitzako zerrendak berriz, boto bat jaso zuen.

Bestetik, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, 216tik 177k eman zuten botoa. Baliarik gabeko 2 boto izan ziren, eta gainontzean emaitzak honakoak izan ziren: Bilduk 88 boto, EAJk 72 boto, Hamaika Batek 8 boto eta Aralarrek 7 boto.

Aizkorri-Aratz Parke Naturalari buruzko hitzaldia eta ibilaldia



Maiatzaren 24a, asteartea, Europako Parke Naturalen eguna dela aprobetxatuta, "Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren Eguna" antolatu du Zeraingo Fundazioak. Egunean bertan, asteartean, hitzaldia egongo da kultur etxean iluntzeko 7etan: *Aizkorri-Aratz Parke Naturala Zerainen*. Asier Arrese Diputazioko Mendi Zuzendariak eta Jakoba Errekondo paisajistak herrian parke naturalak duen eraginaren berri emango dute. Bestalde, maiatzaren 28an, larunbatez, mendi ibilaldia emango da Zeraingo lurretan zehar, Parke Naturaleko eremuan dagoen ibilbide batean. Irteera goizeko 9etan izango da herriko plazan.

Herri-giroan ospatu da San Isidro

Azken urteetan berreskuratu den ohiturari jarraituz, maiatzaren 15ean, San Isidro eguna ospatu zen Zerainen. Baserritarren egunean, baserritarrak nahiz gainerako herritarrak mahaiaren bueltan elkartu ginen. Frontoian egin zen bazkarian 80 herritar inguru elkartu ginen: ume, heldu nahiz zahar. Benetako herri-giro bikainean joan zen bazkaria eta bazkalostea. San Isidro emandako aitzakia majo aprobetxatu genuen zeraindarrok elkarrekin egun ederra pasatzeko. San Isidro pasata ere, baserritarrek lanean jarraitu beharko dute soro, baratze, zelai eta ukui-letan.



Goierriko eskola txikien festan izan dira zeraindarrak

Maiatzaren 7an, arratsaldez, Gabirin elkartu ginen Goierriko eskola txikien festa ospatzeko, Olaberria, Itsasondo, Gabiria eta Zeraingo haur eta gurasoak. Pintxo hotz lehiaketa, jokuak, pailazoak, merienda eta urtero bezala, lekukoa pasatzea (hurrengo urtean Itsasondo) izan genituen ekintzak. Aipatzekoa da zeraindarrok gustora aritu ginela pintxoak prestatzen, baina saririk ez genuela lortu. Ea hurrengoan! (argazkian guk egindako pintxo batzuk).

Basarte Guraso Elkarteak.



Zeraingo koruak eta Ezkio-Itsasokoak bi emanaldi egin dituzte

Herriko Uharka abesbatzak eta Ezkio-Itsasoko koruak bi emanaldi eskaini dituzte elkarrekin. Maiatzaren 8an, Ezkio-Itsason festak zirela aprobetxatuta, Uharka hara gerturatu zen kantatzera. Hurrengo astean, San Isidro egunean, ezkiotsosotarrak etorri ziren Zerainen kantatzera. Bejondaiela guztiei!



Zeraingo Uharka abesbatza Ezkion kantuan.



Zeraingo eta Ezkio-Itsasoko koruak elkarrekin kantuan Zerainen.

Musika emanaldia ekainaren 3an

Ekainaren 3an, ostirala, musika emanaldia egongo da Zeraingo elizan, iluntzeko 8etan. Ordiziako helduen musika eskolako ikasleek ikasturte amaierako kontzertua emateko Zerain aukeratu dute. Zortzi bat ikasleek abestuko dute pianoaren laguntzarekin, eta horien artean izango da Telleriko Jexux Ezeizabarrena ere. Iluntzeko 8etan, ekainaren 3an.



Erkin, erkiñe

Joan den asteko kontua da guztia. Mendi-bueltaxka egiten ari ginelarik, hor non egin dugun topo goierritar ezagun batekin. Hitzak hizpidea emanik, Xaguarteko artikuluek hasten gara hizketan. Berehala esaten digu goierritar jator horrek, galtzen ari diren hitzen irakurle dela. Xaguartea irakurtzen duela, aldian behin, eta berak ere baduela gogoan halako hitzen bat edo beste. Tartean, *erkiñe*. Elenak hortik hastea erabaki du, geroak geroko utziz. Hori dugu, beraz, gaurko hitza: *erkin*, *erkina*. Goierri-alde honetan *erkiñe*.

Uste baino lan delikatuagoa dakarkigu hitz honek. Hau ez da, izan ere, elementu material baten izendapena. Hau ez du aldakuntza eta transformazio teknologikoak, eta haren bidelagun dugun eguneroko bizimoduak, bazter batera bidali. Oraingoan ezin dugu esan, beste kasu askotan aipatu izan dugun bezala, modernizazio ekonomikoak, teknikoak, soziokulturalak eta urbanizazioak eragindako ondorioa denik hitz honen galera. *Erkiñe* ez da inolako tresna, produktu material edo erreminta. Kontzeptu abstraktua da *erkin* hori, lehen bezain beharrezkoa den kontzeptua. Zergatik ari da, beraz, galtzen?

Goazen pausoz pauso: galtzen ari al da *erkiñe*? Nongo hitza dugu? Zer esan nahi izan du, orain arte, *erkin* horrek? Zergatik ari da hitza galtzen? Lehenengo galderatik hasiko gara. Bai, zeraingar askok ez daki, gaur egun, *erkiñe* zer den. Proba egin du Elenak, etxetik bertatik hasita, eta ondorio horretara iritsi da. Guk ere egin dugu saiotxoren bat, Mandion eta Ostatun, eta antzeko emaitza jaso dugu. Hirurogei urteko zenbait zeraingarrek (ez guztiek) badakite *erkiñe* zer den, eta noizean behin erabili ere egiten omen dute. Berrogei urteko beherako herritar gutxi baliatzen da hitz horretaz: jakin ere ez dakite gehienek zer esan nahi duen. Argi dago beraz: galtzen ari da *erkiñe* Zerainen eta inguruan. Ez da erraza esatea dakitenen eta ez dakitenen arteko muga non dagoen; are zailagoa era-

biltzen dutenen eta ez dutenen arteko marra zer adin ingurutan jar litekeen. Badirudi etxe batzuetan eutsi egin zaiola hitzari, eta beste batzuetan aspalditxo pasa zirela sinonimoren batera. Diferentzia kronologiko horien eragileak interesgarriak izan litezke, baina ez gaude horien berri emateko moduan. Hipotesiak, berriz, hurrengo baterako utziko ditugu.

Gatozen bigarren puntura: non erabili izan da hitz hori, orain arte? Bistan da bizi-bizirik egona dela Zerainen eta inguruan: oraindik ere askotxo akordatzen dira *erkin* horretaz, eta batek baino gehiagok zehatz eta zorrotz erabiltzen du. Zeraingo eta Zerain inguruko txokokeria ote da, beste inon erabiltzen ez den lokalismo endemikoa alegia? Erantzuna, erantzun argia, ezezkoa da. Leku askotxotan erabili izan da *erkin*, aspaldidanik, Euskal Herrian. Bizkaian eta Gipuzkoan, behintzat, ugari dokumentaturik dago. Lapurdiko idazle biren lumatatik ere jaso izan da testigantzarik (ez, ordea, Bizkai-Gipuzkoetan bezain testigantza argirik). Nafarroan eta abar, azkenik, ez da jaso izan *erkin* horren testigantzarik.

Hirugarren galderari ere saia gaitzen erantzuna bilatzen. Zer esan nahi zuen lehen eta, oraindik erabiltzen dutenen ezpainenetan, zer esan nahi du orain *erkin* hitzak? Orotariko Euskal Hiztegia hartuko dugu, gehienetan bezala, korapiloa askatzeko gidari: Honela dio: *débil* (sentidosprop. y fig.), "alicaído", "débil", "delicado", "desmalazado, flacucho", "desmedrado, flaco; (fig.), *débil*, inconstante". Bi sinonimo eransten dizkio hiztegiak *erkin* hitzari: ahul eta makal. Leku batetik bestera hots-aldaketa xumeak jaso izan ditu: leku batean *erkin* dena *erkein* da Plentzia aldean, *erki* Tolosan eta Beterrin eta, azkenik, *irkin* Bergara aldean. Ez dago alde handirik, nolana ere, herri batetik bestera. Hitzak eman ditu bere adarrak: *erkindade* (ahuldade moduan) *erkintasun* (ahultasun, makaltasun gisa), *erkinkeria* (ahuleria moduan) eta abar. Dexente

erabili izan den seinalea da hori, ezereen adierazgarri izatekotan. Adibideak horren guztiaren testigu ditugu: Horrelakoak ditugu, beste askoren artean, Mogelen "argal, *erkin*-ta itxuratik irtenda", Añibarroren "gatxa daukan landaria beti izango da *erkina*", Txomin Agirrerren Kresalako "mamingitxikoataerkiña" edota Aierberen Segura aldeko "landare *erkiña*", 1916an jasoa.

Gatozen, azkenik, laugarren puntura: zergatik ari da *erkin* hitza galtzen? Oraingoan motiboa ez da (ez dirudi behintzat) transformazio teknologikoa, tresna batzuk xaharkitzen eta alferrikako bihurtzen dituen. Transformazio kulturala ere ez: lehen bezain bizia eta lehen bezain beharrezkoa da, orain ere, *erkin* kontzeptua. Baserritik kalera jaitsi izanarekin ere nekez lotu liteke horren galera: kaletarrek (euskaraz mintzo diren kaletarrek) baserritarrek bezain sarri jo behar izaten dute hitz horren adiera-muinera. Zergatik ari da, beraz, galtzen? Hipotesi sendoena honako hau iruditzen zait niri: euskarazko jarduna ahultzen ari da, indartzen baino areago, euskal hiztunon erdararekiko bizikidetzaren honetan. Gero eta esparru gutxiago ditugu euskara hutsez jardutekoak, eta erdararen gero eta beharreanago sentitzen gara eguneroko sentierak, usteak eta juzkuak azaltzerakoan ere. Juzku-sentiera-iritzi horiek maizago azaltzen baditugu erdaraz, eta bakanago euskaraz, harritzekoa ere ez da hiru hitzen ordezkarekin edo batekin aski izatea: makar, ahul eta erkin hirukotea makar eta ahul bikotera murrizten ari gara euskaldun askotxo: zenbait aski du bakarrarekin: ahul. Berdintsu gertatzen ari da kontrako adiera azaltzerakoan: *handia*, *erraldoia*, *jigantea*, *tzarra* eta abar sinonimo bakarrera murrizten ari gara: *kristo(re)ma* dugu, gaur egun, neurri handiaren adierazgarri enfatiko nagusi, zenbaiten ezpainenetan ia bakar.

Mikel Zalbide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

APIRILA	al	ar	az	og	or	lr	ig
					1	2	3
Euria (l/m)	GUZTIRA: 70,5l.				0	0	12
C° altuena	ALTUENA: 34°				27	27	12
C° baxuena	BAXUENA: 2°				6	15	10
	4	5	6	7	8	9	10
Euria (l/m)	1,5	0	0	0	0	0	5
C° altuena	14	28	30	34	33	31	17
C° baxuena	8	5	10	12	9	10	12
	11	12	13	14	15	16	17
Euria (l/m)	3	0	0	0	0	0	0
C° altuena	15	14	25	18	15	24	25
C° baxuena	11	10	2	6	6	4	6
	18	19	20	21	22	23	24
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	1,5	39
C° altuena	24	25	22	23	18	25	17
C° baxuena	13	13	13	13	13	8	10
	25	26	27	28	29	30	
Euria (l/m)	5,5	0	0	0	0	3	
C° altuena	17	21	25	25	27	24	
C° baxuena	11	12	6	9	5	9	

Apirilean beroa

Apirilean beroa izan dugu nagusi, batik bat bigarren astean. 30°tik gora izan dugu, udan ere askotan izaten ez ditugun tenperaturak udaberri hasieran etorri zaizkigu aurtengoan. Apirilak euritsu fama badu ere, oraingoan ez du horrenbeste egin, 70 litro zortzi egunetan. Eguraldi ederra esango genuke, zuhaitzak eta landareak loratu eta fruituak hartzeko. Adibide moduan, argazkian ditugun basoko marrubi hauetan loreak eta aleak ikus ditzakegu.



Zerain telebistako plato



Zerain telebistako platoa bailitzan, *Bizi* izeneko programa berri bat grabatzen aritu dira egunotan ETBrako. Herriko hainbat pertsonarekin aritu dira grabaketak egiten. Iruditan, Martina eta Jon Untsulategi azpiko zelaian kamararen aurrean hizketan.

Festak antolatzeko eta urtekaria egiteko bilera

Aurtengo Andramari jaiak antolatzeko eta urtekaria egiteko bilera maiatzaren 27an egingo da arratsaldeko 7etan kultur etxean. Herritar guztiak gonbidatzen ditu Kultur Elkarteak.

Mandio taberna itxita

Oporrak direla-eta, ekainaren 4tik 13ra, biak barne, itxita egongo da Mandio taberna.

Herri-mugetan ibilaldiak

Herri-mugak bisitatzeko ibilaldiak martxan dira. Maiatzaren 7an egin zen lehenengoa eta bigarrena ekainean egiteko asmoa dago, oraindik data zehaztu ez bada ere.

